




itzulpena: Maider Arizabaleta, Igone Aldalur, Andoni Barragan

Gloria Scott

ARTHUR CONAN DOYLE



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ARTHUR CONAN DOYLE

Gloria Scott

Itzulpena:

Maider Arizabaleta

Zuzenketa:

Igone Aldalur

Maketazioa:

Andoni Barragan

— Paper batzuk ditut hemen —esan zuen Sherlock Holmesek, nire lagunak, neguko gau batean suaren albo banatan eserita geundela—. Benetan uste dut, Watson, merezi duela horiei begirada bat botatzea. Gloria Scotten kasu harrigarriko dokumentuak dira. Eta hau da Trevor epaileari izua eragin zion mezua, irakurri bezain pronto lur jota erori baitzen.

Tiradera batetik zilindro zahar bat atera zuen. Zinta askatu, eta arbelezko paper grisaren tarteko orri batean idatzitako ohar motz bat eman zidan.

Hona hemen mezua: Londreserako ehiza-hornidura gora doa etengabe. Hudson zaindari nagusiari, antza, euli-papera eta zure oilo-faisaiaren bizitza babesteko eskaerak jasotzeko agindua eman diote.

Mezu misteriotso hura irakurri eta gero, gora begiratu nuen. Holmes isilpeko barre batean ari zen, nire aurpegiko keinuari begira.

— Nahastuta zaude, Watson —esan zidan.

— Ez dut ulertzen horrelako mezu batek nola eragin dezakeen izua. Niri, groteskoa iruditzen zait, beldurgarria baino gehiago.

— Baliteke —onartu zuen Holmesek—. Baina egia da: irakurlea, agure sendo eta osasuntsua, kolpean lurrera erori zen. Pistolaren kolpe batek jota bezala.

— Jakin-mina piztu didazu —esan nion—. Baina zergatik esan duzu kasu hau aztertzeko arrazoi bereziak daudela?

— Nire lehen kasua izan zelako —erantzun zuen.

Maiz saiatu izan naiz Holmesi galdetzen ea zerk bideratu zuen ikerketa kriminalaren mundura. Hala ere, ez nuen sekula hitz egiteko prest zegoen une bat topatu. Oraingoan, ordea, besaulkian aurrerantz makurtu zen. Agiriak belaunetan zabaldu zituen. Pipa piztu eta isilik geratu zen, erretzen eta dokumentuak pasatzen.

— Ez nauzu inoiz entzun Victor Trevorri buruz hitz egiten? —galdetu zidan—. Bi urte eman nituen unibertsitatean, eta hura izan zen egin nuen lagun bakarra. Ez nintzen ikaskide lagunkoia. Gela barruan pasatzen nuen denbora gehiena, bakardadean, pentsamendu-metodoak lantzen. Ez nuen urte bereko beste ikasleekin harreman esturik.

Kirola gutxi gustatzen zitzaidan, esgrima eta boxeoa izan ezik. Eta gainera, nire ikasketek ez zuten bat egiten haienekin. Ez genuen elkarrekintzarako ia aukerarik. Trevor izan zen ezagutu nuen bakarra,

kasualitatez. Egun batean, kapera aldera jaisten ari nintzela, haren bull terrier txakurrak orkatilan hozka egin zidan.

Adiskidetasuna modu arruntean hasi zen, baina eraginkorra izan zen. Hamar egunez ohean egon nintzen, eta Trevor sarri etortzen zen nire egoeraz galdetzeraz. Hasieran minutu gutxiko bisitak ziren; baina laster, elkarrizketak luzeagoak bihurtu ziren. Ikasturtea amaitu aurretik, lagun minak ginen. Trevor bihotz zabalekoa zen, grinez eta indarrez betea. Nigandik oso desberdina zen, baina bagenituen partekatzen genituen zenbait gai. Horrela, harreman estua sortu zen, biok ere lagunik gabe geundela ohartu ginelako. Azkenik, bere aitaren etxera gonbidatu ninduen: Donnithorpera, Norfolk. Oporraldi luzean, hilabete igaro nuen bertan.

Trevor zaharra, jakina, nolabaiteko aberastasuneko eta aintzatespeneko gizona zen, bake epaile bat eta lur-jabea. Donnithorpe Langmere iparraldean dagoen herrixka txiki bat da, Broads herrialdean. Etxea zaharkitua zen, baina dotorea. Adreiluz eraikia zen, hariztizko habez indartua, eta kareztatutako bide fin bat zuen etxera bidean. Zingiretan basahateen ehiza bikaina zegoen, baita arrantza ere. Liburutegi txiki baina apartekoa zuten, aurreko jabe baten ondarea, dirudienez. Eta sukaldari duina. Zorroztasun handiko gizon batek ere ezingo zukeen han hilabete desatsegin bat pasa.

Trevor zaharra alarguna zen. Eta nire laguna, bere seme bakarra. Alaba bat ere bazuten, baina difteriaz hil zen Birminghamen, bisitan zegoela. Aita benetan interesgarria iruditu zitzaidan. Ez zuen heziketa akademikorik, baina sekulako indarra zuen, fisikoki zein mentalki. Ia ez zuen libururik ezagutzen, baina urrutira bidaiatu zuen, mundu asko ikusi zuen. Ikasitako guztia gogoan zuen.

Gorputzez lodia zen, sendoa. Ile gris nahasia zuen, eguzkiak jotako aurpegi zimurtua, eta begi urdin biziak. Ia oldakorrak. Hala ere, eskualdean adeitsu eta eskuzabal izateagatik zen ezaguna. Baita epaitegian emandako epai ulerkorrengatik ere.

Egun batean, ni iritsi eta gutxira, afaldu ostean ardo kopa bana hartzen ari ginen. Trevor gaztea nire ohiturez hitz egiten hasi zen: behaketa eta ondorioztapenez. Nik ordurako sistematizatuta nituen, baina oraindik ez nuen ulertzen zer garrantzi izango zuten nire bizitzan.

Agureak, dirudienez, pentsatzen zuen bere semea gehiegi ari zela esajeratzen. Hain zuzen ere, nire lorpen txiki batzuk deskribatzen ari zenean.

— Zatoz, Holmes jauna —esan zuen, umore onean barrez—. Ni naiz aztertzeke gairik onena. Zerbait ondorioztatzeko gai bazara, saia zaitez.

— Beldur naiz ezer handirik ez egoteaz —esan nuen—. Baina susmatzen dut azken urtean zure aurkako eraso baten beldurrez ibili zarela.

Barrea desagertu zitzaion ezpainenetik, eta harrituta begiratu zidan.

— Beno, hori egia da. Gogoratzen duzu, Victor? Lapurreta talde hura desegin genuenean, aitzotz erasotuko gintuztela zin egin ziguten. Edward Holly jauna benetan erasotu zuten. Ordutik erne ibili naiz. Baina nola jakin duzu?

— Makila ederra duzu. Grabatuari begira, urtebete baino gehiago ez duzula izan konturatu naiz. Gainera, buruan zuloa egin diozu eta beruna isuri barrura, arma bilakatzeko. Halako neurririk ez zenuke hartuko arriskuren bat izan ezean.

— Beste zerbait? —galdetu nuen irribarrez.

— Gaztetan boxeolari izan zara.

— Zuzen. Nola igarri duzu? Sudurra apur bat okertuta al daukat?

— Ez. Zure belarriak dira. Boxeolaria markatzen duten berdintze eta loditze berezia dute.

— Beste ezer?

— Asko aitzurtu duzu. Eskuek erakusten dute.

— Urrezko zelaietan egin nuen diru guztia.

— Zelandia Berrian egona zara.

— Bai.

— Japonia ere bisitatu duzu.

— Halaxe da.

— Eta oso hurbil egon zinen J. A. inzialak zituen norbaitengandik, eta gero, guztiz ahaztu nahi izan zenuen pertsona hura.

Trevor jauna poliki-poliki zutitu zen, begi urdin handiak zabalik eta begirada arraro batekin. Bat-batean aurpegia erori zitzaion fruitu-azalez jositako mahai gainera. Konortea galdu zuen.

Imajina dezakezu, Watson, zenbateko harridura genuen semeak eta biok. Bere erasoak ez zuen asko iraun, ordea. Lepokoa askatu eta hatz-edalontzi bateko ura aurpegiara bota genionean, bi edo hiru hats egin eta eseri egin zen.

— A, mutilak —esan zuen irribarre bat behartuz—, espero dut ez zaituztedala beldurtu. Indartsua dirudidan arren, bihotzean ahulezi txiki bat daukat, eta ez dut asko behar mintzeko. Ez dakit nola kudeatzen duzun hori, Holmes jauna, baina iruditzen zait egiazko eta fantasiazko detektibe guztiak haurrak direla zure konparatuta. Zure ogibidea da hori, jauna, eta munduan zerbait ikusi duen gizon baten hitza har dezakezu.

Eta gomendio hura izan zen lehen aldiz benetan pentsarazi zidana. Bere hitzek gehiegizko estimazioa erakusten zuten. Hala ere, eragin zuten. Orduan konturatu nintzen hau lanbide bihur zitekeela. Ordura arte, zaletasun hutsa besterik ez zen izan niretzat.

— Ea ba, espero dut esandakoarekin min eman ez izana —esan nion.

— Beno, zalantzarik gabe, punturik sentikorrena ukitu duzu. Galdetu dezaket nola dakizun, eta zenbat dakizun? —esan zuen erdi txantxetan, baina begiradan izua nabari zitziola.

— Erraza da —esan nion. —Arraina ontzira ekartzeko besoa biluztu zenuenean, ukondoan, "J. A." letrak ikusi nizkizun tatuatuta. Letrak irakurgarriak ziren oraindik, baina itxura lausoagatik eta inguruko azalaren zikinduagatik agerikoa zen horiek ezabatzeko ahaleginak egin zirela. Nabaria zen, bada, inizial haiek oso garrantzitsuak izan zirela zuretzat, eta gero ahaztu nahi izan zenituela.

— A zer nolako begia duzun! —esan zuen. Mamu guztien artean gure maitale zaharren mamuak dira okerrenak. Zatoz, bilar-gelara eta lasai erre dezagun puru bat.

Egun hartatik aurrera, Trevor jaunaren jarreraren beti nabaritzen zen mesfidantza puntu bat, adeitasuna mantendu arren. Bere semea ere konturatu zen:

— Aita erabat harritu duzu —esan zidan—. Orain ez du inoiz jakingo zer dakizun eta zer ez.

Ez zuen hori erakutsi nahi, seguru nago, baina hainbeste kontu zituen buruan, ezen noizbehinka jarreraren nabaritzen baitzitzaion. Azkenean, gero eta argiago ikusi nuen nire presentziak ezinegona sortzen ziola,

eta bisita laburtzea erabaki nuen. Hala ere, alde egin aurreko egunean, gertaera bat izan zen, eta denborarekin, garrantzitsua bihurtu zen.

Lautadan geunden, hirurok eguzkitan eserita, Broadseko paisaiaz gozatzen, eta bat-batean, neskamea agertu zen:

— Gizon bat dago atean. Trevor jauna ikusi nahi du.

— Zein da bere izena? —galdetu zuen Trevor jaunak.

— Ez du eman nahi izan.

— Eta, zer nahi du?

— Esaten du ezagutzen zaituela, eta elkarrizketa labur bat besterik ez duela nahi —esan zuen neskameak.

— Ekartzeko esan —erantzun zuen Trevor jaunak.

Une bat geroago, gizontxo bat agertu zen, jarrera makurrez eta oinez dardar. Txaketa zabal bat zeraman, mahukan alkitran orban batekin; koadrodun alkandora gorri-beltza, prakak, eta txapin astunak, zaharkituak. Aurpegia iluna eta mehea zuen, itxura maltzur samarrekoa, eta irribarre etengabe bat ageri zitzaion, hortz horixka eta irregularrekin. Eskuak, itsasgizon askorenak bezala, erdi itxiak eta zimurtuak zituen. Belardia zeharkatzen ari zela, Trevor jaunak eztarrian nolabaiteko zotin hotsa egin zuen, eta aulkitik jauzi eginez, etxe barrura joan zen arin batean. Berehala itzuli zen, eta berarekin batera brandi-usain sarkorra zabaldu zen.

— Beno, lagun, zer nahi duzu? —esan zion.

Itsasgizona zutik zegoen begi zimurtuekin begira, eta aurpegian ezpain solteko irribarre berberarekin.

— Ez nauzu ezagutzen?

— Hara! Ez al da Hudson? —esan zuen Trevor jaunak, harriduraz.

— Hudson bera, jauna —erantzun zuen marinela—. Hogeita hamar urte baino gehiago igaro dira azken aldiz ikusi zintudanetik. Hemen zaude zure etxean, eta ni oraindik nire haragi gazia arnes-upeletik ateratzen».

— Ba! Ez nauzu horregatik zaharrak ahaztutakoan harrapatuko —esan zuen Trevor jaunak.

Itsasgizonarengana gerturatu eta zerbait xuxurlatu zion. Gero, ozenago:

— Zoaz sukaldera. Han jan-edana izango duzu. Ziur nago lanpostu bat aurkituko dizudala.

— Eskerrik asko, jauna —esan zuen itsasgizonak, kopeta ukituz.

— Bi urteko bidaia egin dut zortzi korapiloko ontzi batean, eskasiaz eta nekez. Atsedeen pixka bat behar dut. Pentsatu nuen, Beddoes jaunarengana edo zugana etorritz lortuko nuela.

— Aja! —egin zuen Trevor jaunak—. Badakizu non dagoen Beddoes jauna?

— Jakina, jauna. Lagun zahar guztiak non dauden badakit —esan zuen irribarre gaizto batez, eta neskamearen atzetik abiatu zen sukaldera.

Trevor jaunak esan zigun itsas bidaia zahar batean ezagutu zuela, Australiara joan aurretik. Gero, gu belardian utzita, etxera sartu zen. Ordubete geroago, etxera sartu ginenean, jangelako sofán etzanda aurkitu genuen, mozkortuta, guztiz galduta. Gertaera hark ezinegon handia sortu zidan, eta hurrengo egunean Donnithorpetik alde egitea ez zitzaidan batere damugarri egin; susmoa bainuen nire presentziak estutasuna eragiten ziola lagunari.

Hau guztia opor luzeetako lehen hilabetea gertatu zen. Ondoren, Londreseko logelara joan nintzen, eta zazpi aste eman nituen kimika organikoko zenbait esperimentu egiten. Udazkena aurrera zihoala, eta oporrak amaitzeaz zeudela, Telegram bat jaso nuen lagunarengandik. Premiazko laguntza eta aholkua eskatzen zidan, egoera larrian zegoela. Berehala dena utzi, eta iparralderako bidea hartu nuen berriro.

Zaldiko-orga txikian hartu ninduen geltokian, eta lehen begiratuan ohartu nintzen azken bi hilabeteak oso gogorak izan zirela harentzat. Askok argaldu zen, nekatuta zegoen, eta galdu zuen lehen zuen jarrera alaia eta ozen hura.

— Aita hiltzeaz dago —esan zuen lehenengo.

— Ezin da egia izan! —egin nuen nik—. Zer gertatu zaio?

— Apoplexia. Kolpe nerbioso bat. Egun osoa darama arriskuan. Ez dakit bizirik aurkituko dugun.

Imajinatuko duzu, Watson, albiste horrek izu bizian utzi ninduela.

— Zer izan da horren eragilea? —galdetu nion.

— Hori da gakoa. Sartu zaitez, eta bidean hitz egingo dugu. Gogoratzen duzu alde egin aurreko arratsaldean etorri zen gizon hura?

— Primeran —erantzun nuen.

— Ba badakizu nor sartu genuen etxean egun hartan?

— Ez daukat arrastorik ere.

— Deabrua zen, Holmes —oihukatu zuen.

Begira geratu nintzaion, txundituta.

— Bai, deabrua bera. Ordutik ez dugu ordu bakar bat ere izan lasai. Aita ez da gehiago altxatu arratsalde hartatik, eta bizitza itzali zaio, bihotza hautsi, madarikaturiko Hudson horregatik.

— Zer botere zuen bada hark?

— Hori jakiteko zer ez nukeen emango! Gizon on eta eskuzabal hura, nola erori zen halako gaizkile baten eskuetan? Baina, Holmes, pozik nago etorri izanaz. Zure adimena eta diskrezioa oso estimuan ditut, eta badakit aholkurik onenak emango dizkidazula.

Errepide zabal eta zuri hartan barrena zihoazen gurdiak, Broadseko eremu luzea aurrean, ilunabarreko argi gorrian distiraka.

Ezkerreko zuhaitz-sail baten atzetik ikus zitezkeen jada lurjabearen etxeko tximinia altuak eta bandera-masta.

— Aitak lorazain hartu zuen hasieran —esan zuen nire lagunak—. Baina hori ez zitzaion nahikoa iruditu, eta morroi nagusi izendatu zuen gero. Etxean nahi zuena egiten zuen. Askatasun osoz zebilen, eta neskameak kexu ziren. Edateko ohitura txarrak zituen, eta hizkera oso zikinarekin mintzatzen zen. Aitak haien soldata igo zuen, jasaten zutenagatik ordain modura. Hudsonak nahi zuenean hartzen zuen ontzia, baita aitaren eskopetarik onena ere, eta bere kasa joaten zen ehizara. Eta hori guztia, aurpegian beti irri iraingarri eta harro hura zuela. Nire adinekoa izango balitz, behin baino gehiagotan emango nioke kolpe

bat. Esango dizut, Holmes, neure burua gogor kontrolatu behar izan dut. Eta orain pentsatzen dut agian hobe izango zela pixka bat askatzea.

— Gauzak gero eta okerrago zihoazen. Hudson gero eta lotsagabeago bihurtu zen. Azkenik, egun batean, aitari irain egin zion nire aurrean. Sorbaldetatik heldu nion eta gelatik bota nuen. Isilik alde egin zuen. Aurpegia zurbil zeukan, eta begi pozoitsu haiek ahoak baino mehatxu handiagoak egiten zituzten. Ez dakit gero zer gertatu zen bien artean, baina hurrengo egunean aita niregana etorri zen eta galdetu zidan ea Hudsoni barkamena eskatuko niokeen. Nik uko egin nion. Galdetu nion nola onar zezakeen horrelako gizon batek bera eta bere etxekoei horrelako gauzak egitea.

— Ez dit barkamenik eskaini —esan zuen goibel, nire aldera begiratuz.

— Victor, aitortuko duzu mutil zintzo hau gogor tratatu duzula —esan zuen aitak, nigana jiratz.

— Aitzitik, uste dut biok pazientzia handia erakutsi diogula —erantzun nion.

— Hala uste duzu, ala? Oso ondo, lagun. Ikusiko dugu gero!

Gela nagi utzi zuen, eta ordu erdi geroago alde egin zuen etxetik. Aita, berriz, izu larrian geratu zen. Gauero entzuten nuen bere gelan gora eta behera, eta konfiantza berreskuratzen hasia zenean iritsi zen kolpea.

— Eta nola? —galdetu nion, irrika biziz.

— Modu harrigarrian. Atzo iluntzean gutun bat jaso zuen, Fordingbridgeko postarekin. Irakurri bezain pronto, bi eskuak buruan jarri zituen, eta gelan biraka hasi zen, zentzu guztiak galduta bezala. Azkenean, sofan esertzea lortu nuen, baina ahoa eta betazalak alde batera okertuta zituen. Orduan konturatu nintzen isuria izan zuela. Fordham medikua berehala etorri zen. Ohean etzan genuen, baina paralisia zabaldu egin zen. Ez zuen kontzientziarik berreskuratu, eta ez nuen uste bizirik aterako zenik.

— Horrorez uzten nauzu, Trevor! Zer zegoen gutun horretan, hain ondorio beldurgarria izateko?

— Ezer ez. Hori da guztiz ulertezina. Mezu hutsa eta zentzugabea zen... Ene Jainkoa, beldur nintzena gertatu da!

Hori esatearekin batera, bidearen bihurgunera iritsi ginen. Argia iluntzen ari zen, eta etxe guztietako pertsiak jaitzita zeuden. Etxerantz korrika abiatu ginen, Trevorren aurpegia doluz okertuta. Etxetik beltzez jantzitako gizon bat ateratu zen.

— Noiz gertatu da? —galdetu zion Trevorrek medikuari.

— Ia berehala, zu alde egin eta gero.

— Kontzientzia berreskuratu al zuen?

— Bai, une batez, amaiera baino lehen.

— Mezurik utzi al zuen niretzat?

— Bai: esan zuen paperak japoniar armairuaren atzeko tiraderan daudela.

Trevor eta medikua hildakoaren gelara igo ziren. Ni, berriz, estudioan geratu nintzen, burua pentsamenduetan galduta. Inoiz baino ilunago sentitzen nintzen barrutik.

Zer zen Trevor horren iragana? Boxeolaria izan zen, baita bidaiaria, eta urre bila ibilia ere. Nola jarri zen, orduan, aurpegi garratzeko itsasgizon haren esku? Eta zergatik erori zen lurrera, besoan zituen erdi ezabatutako inizialez hitz egin ziotenean? Zergatik hil zen ikaraz, Fordinghametik gutun bat jaso zuenean?

Gogora etorri zitzaidan Fordingham Hampshiren dagoela. Itsasgizonak bisitatu zuen Beddoes jauna ere bertan bizi omen zen, eta xantaia egitera joana zela zirudien. Beraz, gutuna Hudsongandik zetorren agian, erruaren sekretua salatu zuela esanez. Edo Beddoesengandik, bere konplize zaharrari ohartaraziz arriskua gertu zegoela. Hori guztia logikoa zen. Baina semeak esan zuen gutuna hutsala eta zentzugabea zela. Nola izan zitekeen hori? Akaso gaizki ulertu zuen. Hala balitz, kode sekretu bat izango zen, esanahi bat agerian eta beste bat ezkutuan zuena.

Gutun hura ikusi nahi nuen. Barruan mezu ezkutua bazegoen, ni izango nintzen hura aurkitzeko gai. Ordu batez egon nintzen ilunpetan pentsakor. Azkenean, negarrez zegoen neskame batek lanpara ekarri zuen. Atzetik, Trevor laguna agertu zen. Zurbil zegoen, baina lasai. Eskuetan zekarren paper multzo hau, orain nire belaunen gainean dudana.

Nire aurrean eseri zen, lanpara mahaiko ertzera hurbildu, eta orri gris batean idatzitako ohar labur bat eman zidan. Honela zioen: Londreserako ehiza-hornikuntza gora doa etengabe. Badirudi Hudson basozainari esan zaiola orain berak jaso behar dituela euli-paperezko eskaerak, baita zure faisai emearen bizitza babestekoak ere.

— Ziur nago nire aurpegia nahastuta zegoela. Zurea bezala, mezu hau lehen aldiz irakurri nuenean. Gero, arretaz berrirakurri nuen. Susmoa neukan hitz horien artean mezu ezkuturen bat zegoela. Hitz konbinazio arraro horiek ez ziren kasualitate hutsa.

— Pentsatu nuen agian aurretik adostutako esanahi bat zutela 'euli-papera' edo 'faisai emea' bezalako esamoldeek. Baina horrelako kodeak ezin dira logikaz asmatu. Arbitrarioak dira. Hala ere, ez nuen hori sinetsi nahi. 'Hudson' izena agertzeak erakusten zuen mezua nire susmoaren araberakoa zela. Eta igorlea, seguruenik, Beddoes zen, ez itsasgizona.

— Atzekoz aurrera irakurtzen saiatu nintzen. Baina 'bizitza faisai emearen' ez zuen zentzurik. Hitz arruntak banaka hartuta ere ez nuen ezer ulertu. Hori, horko, eta horretarako edo Londreseko jokoa hornitzea bezalako konbinazioak ez ziren lagungarri.

— Bat-batean, argitu zitzaidan. Lehen hitzetik hasita hirugarrenera, hitz bakoitza hartu nuen. Eta hortik mezu bat atera zen. Mezu labur bat, baina beldurgarria. Trevorrentzat nahikoa zen etsi eta izutzeko.

Hau zen mezua: Dena bukatu da. Hudsonen dena kontatu du. Ihes egin zure bizia salbatzeko.

Victor Trevorrek burua esku dardaratietan ezkutatu zuen.

— Hori izango da, bai —esan zuen—. Hau heriotza baino okerragoa da. Lotsa eta ohorea galtzea esan nahi du. Baina... zer zentzutan sartu ditu basozain nagusiak eta faisai emea?

— Mezuarekin zerikusirik ez dute —esan nion—. Baina igorlea nor den asmatzeko erabilgarriak izan daitezke. Ikusi: mezua 'Jokoa da...' esaldiarekin hasten da. Gero, kodearen egitura betetzeko, hutsuneak bete behar zituen. Edozein hitz erabil zezakeen. Hitz horiek kirolari edo ehizari buruzkoak badira, igorlea ziur aski ehizazalea da, edo hegaztiak hazten ditu.

— Beddoes ezagutzen duzu?

— Orain konturatu naiz —esan zuen—. Nire aitak udazkeneko jasotzen zuen haren gonbidapena, haren lurretan ehizatzeke.

— Orduan argi dago: gutuna Beddoesek bidali du —esan nion—. Orain jakin behar duguna da zein sekretu zuen Hudson itsasgizonak. Sekretu hark bi gizon aberats eta errespetatu horiek beldurtuta zituen.

— Ai, Holmes, bekatu eta lotsaren kontua dela iruditzen zait! — oihukatu zuen nire lagunak. — Baina zure aurrean ez dut sekreturik izango. Hona hemen nire aitak prestatu zuen adierazpena, Hudsonengandik zetorren arriskua berehalako bihurtu zenean. Kabinete japoniarrean aurkitu nuen, medikuari esan zion leku berean. Hartu eta irakur iezadazu, mesedez, nik ez baitut ez indarrik, ez ausardiarik.

— Hauek dira, Watson, nik jasotako paper berberak, eta irakurriko dizkizut, gau hartan nire gelako estudio zaharrean hari irakurri nizkion bezala. Kanpoan honela sinatuta daude, ikusten duzunez: Gloria Scott belaontziaren bidaiaren zenbait xehetasun: Falmouth hiria utzi zuenetik 1855eko urriaren 8an, suntsitu zen arte, Ipar Latitudea 15°20', Mendebaldeko Longitudea 25°14', azaroaren 6an.

Gutun baten itxura du, eta honela dio:

Nire seme maitea: orain, nire bizitzaren amaiera gerturatzen ari den honetan, egiaz eta bihotzez esan dezaket ez dela legearen beldurra, ezta nire izena eta ospea galtzea, benetan mina ematen didana; baizik eta zu, maite nauzun zu, niregatik lotsatu beharra izatea.

Badakit, seme, normalean ez duzula izan ni errespetatzeko arrazoi faltarik. Hala espero dut, behintzat. Baina nire gaintik zintzilik dagoen zama hau azkenean betetzen bada, nahi nuke hau irakurtzea. Horrela jakingo duzu nik neuk zer erru izan dudana.

Aitzitik, dena ondo badoa (eta Jainkoak hala nahi badu), eta paper hau suntsitu gabe zure eskuetara iristen bada, gauza bakarra eskatzen dizut. Gogoratu zure ama. Gogoratu gure arteko maitasuna. Eta orduan, erre ezazu paper hau. Eta ez pentsatu gehiago honetaz.» Beraz, lerro hau irakurtzen ari bazara, badakit jada agerian utzi nautela eta nire etxetik arrastaka eraman nautela —edo litekeena den moduan, zuk badakizu nire bihotza ahula dela, hil egin naizela eta nire ahoa betiko isildu dela. Nolanahi ere, jada ez dago sekreturik gordetzerik, eta esango dizudan hitz oro egia biluzia da; horrela zin egiten dizut, errukia espero baitut.

Nire izena, maitea, ez da Trevor. James Armitage nintzen gaztetan, eta orain ulertuko duzu duela aste batzuk zure unibertsitateko lagunak nirekin hitz egin zuenean izan nuen ikara, nire sekretua susmatu zuela zirudielako. Armitage izenarekin sartu nintzen Londresko banketxe batean, eta izen horrekin epaitu ninduten, nire herrialdeko legeak urratzeagatik. Zigortu ninduten eta deportaziora kondenatu.

Ez nazazu gogorregi epaitu, seme. Ohorezko zor bat, hala deitzen zen, ordaindu behar izan nuen, eta horretarako, nirea ez zen dirua erabili nuen, ziur bainengoen faltan igarri baino lehen itzuliko nuela. Baina zoritxar handia izan nuen. Espero nuen dirua inoiz ez zen iritsi, etanire hutsunea agerian geratu zen. Kasua agian arintasunarekin tratatu zitekeen, baina orduko legeak askoz zorrotzagoak ziren, eta nire

hogeita hirugarren urtebetetze egunean, Gloria Scott belaontziaren goiko eta beheko solairuen artean kateatuta nintzen, beste hogeita hamazazpi zigorturekin batera, Australiara bidean.

55. urtea zen, Krimeako gerra gori-gorian zegoen garaia. Garai hartako preso-ontzi zaharrak Itsaso Beltzean garraiorako erabili izan zituzten gehienbat. Hori zela eta, gobernuak ontzi txikiago eta egokitasun gutxiagoko batzuk erabili behar izan zituen presoak bidaltzeko. Gloria Scott izeneko ontzia Txinako te-merkataritzan aritua zen lehenago, baina oso estilo zaharrekoa zen: punta lodia eta gorputz zabala zituen, eta belaontzi berriagoek merkatu horretatik kanpo utzi zuten. Bostehun tonako itsasontzia zen, eta 38 preso ez gain, 26 tripulatzailerik, 18 soldadu, kapitain bat, hiru ofizial, mediku bat, apaiz bat eta lau zaintzaile zeramatzan. Guztira ia ehun lagun gindoazen barruan, Falmouthetik abiatu ginenean.

Presoen ziegen arteko hormak ez ziren ohiko haritz lodiak bezain sendoak, baizik eta meheak eta ahulak. Nire ondoan zegoen gizonari arreta berezia jarri nion, kaiaetik behera eramanez gintuztenean. Gaztea zen, aurpegia garbia eta ilegabea zuen, sudur luze eta estua eta masailezur estuak, trapu-jale baten antzekoak. Burua tente eramaten zuen, harrokeriaz ibiliz, eta batez ere, altuera harrigarriagatik nabarmentzen zen. Ez dut uste gure inoren buruak bere sorbaldara iritsiko zirenik. Ziur nago gutxienez sei oin eta erdi neurtzen zuela. Aurpegi nekatuz eta tristuraz betetako giro hartan, energiaz eta erabakitasunez beteriko aurpegi bat ikustea bitxia zen. Elur ekaitz batean sua ikustea bezalakoa irudituko zitzaidan. Pozik egon nintzen nire ondoan tokatu zitzaidalako, eta are poz handiagoa hartu nuen gauaren erdian nire belarriaren ondoan xuxurlaka entzun nuenean: banatzen gintuen egurrezko oholaren zulo bat moztea lortu zuen.

— Kaixo, lagun! —esan zidan—. Zein da zure izena? Zergatik zaude hemen?

Nik erantzun, eta bueltan galdetu nion.

— Jack Prendergast naiz —esan zuen—. Eta Jainkoarren! Nire izena bedeinkatzen ikasiko duzu.

Gogoan nuen bere kasua, nire atxilotetaren aurretik herrialde osoan zeresan handia sortu zuelako. Familia onekoa zen, gaitasun handikoa, baina ohitura ustel eta konponezineko gizona. Londreseko merkataririk ospetsuenak engainatu, eta dirutza lortu zuen iruzur-sistema bikain baten bidez.

— Orduan, nire kasua gogoratzen duzu! —esan zuen harro.

— Oso ondo gainera —erantzun nion.

— Agian orduan, zerbait bitxia ere gogoratuko duzu?

— Zer, bada? —galdetu nion.

— Ia laurden milioi bat lortu nuela, ezta?

— Hala esaten zen.

— Baina ez zuten dirurik berreskuratu, ezta?

— Ez, ezer ez.

— Ba, non uste duzu dagoela falta den guztia? —galdetu zidan.

— Ez dut ideiarik —esan nion.

— Nire hatz eta atzamar artean dago! —egin zuen oihu—. Jainkoarren! Nik daukadan dirua zure buruko ilea baino ugariagoa da. Eta, badakizu zer? Dirua baduzu, eta nola erabili badakizu, nahi duzuna egin dezakezu.— Ez al duzu uste, halako gizon batek ez duela bere bizia ustelduko, sagu eta kakalardoek hartutako Chin Chinako ontzi zahar horren barruan? Ez, jauna. Halako batek bere burua salbatuko du... eta baita bere lagunak ere. Horretan ez izan inolako zalantzarik! Haren ondoan jarraitzen baduzu, ziur salbu aterako zaitu.

Hori zen haren hizkera. Hasieran pentsatu nuen hitz hutsalak zirela. Baina denborarekin, proba egin eta zin eginarazi zidanean, ulertarazi zidan benetako konplot bat zegoela ontziaren agintea hartzeko. Dozena bat presok prestatu zuten dena, ontzira igo aurretik. Prendergast zen burua, eta dirua haren eskutik zetorren.

— Bazuen bazkide bat —esan zidan—, gizon zoragarria, upel bateko tapa bezain fidagarria. Dirua berak zuen, eta asmatzen al duzu non dagoen une honetan? Ba, ontziko apaiza da! Apaiza bera! Jantzi beltzarekin igo zen ontzira, paperak ondo, eta kutxan nahikoa diru ontzi hau osorik erosteko. Tripulazio osoa bere alde du, gorputz eta arima. Diru truke erosi zituen, eta izenpetu aurretik egin zuen hori. Bi zaintzaile eta bigarren ofizial Mercer bere alde ditu, eta kapitaina ere lortuko luke, merezi duela ikusiko balu.

— Eta zer egin behar dugu orduan? —galdetu nion.

— Zer uste duzu bada? Soldadu hauetako batzuei, jostunak baino gorriago jarriko diegu jaka! — Baina armak dituzte —esan nion.

— Eta guk ere izango ditugu, mutil! Pistola bana izango dugu guztiok. Tripulazioa gure alde badugu, eta hala ere ontzia hartu ezin badugu... bada, hobe dugu nesken barnetegi batera bidaltzea! Gaur gauean hitz egin ezazu zure ezkerreko lagunarekin, ea fidatzekoa den.

Hala egin nuen, eta ikusi nuen nire beste auzokoa gazte bat zela, nire antzeko egoeran zegoena. Bere delitua faltsutzea izan zen. Evans zuen izena, nahiz eta gero, nik bezala, aldatu egin zuen. Orain, Ingalaterrako hegoaldean, aberatsa eta arrakastatsua da. Berehala onartu zuen konspirazioan parte hartzea, bizirik ateratzeko aukera bakarra zela ikusita. Badiatik igaro orduko, bi bakarrik geratzen ziren konplota ezagutzen ez zutenak.

Horietako bat burutik ahula zen, eta ez ginen fidatzen; bestea, berriz, ikteriziaz gaixorik zegoen, eta ez zitzaigun erabilgarria izan.

— Hasieratik ez zegoen ontzia gureganatzeko oztoporik —esan zuen—. Tripulazioa gaizkile talde bat zen, espresuki lan horretarako aukeratua. Apaiz faltsuak gure ziegetara bisita egiten zigun predikuak emateko, eta eskuan eramaten zuen poltsa beltza, antza, liburuxkaz beteta. Hainbeste aldiz etorri zen, ezen hirugarren egunerako gure ohe azpian gordeta geneuzkan lima bat, bi pistola, libra bat bolbora eta hogeita bala. Bi zaintzaile Prendergasten gizonak ziren. Gure aurka genituenak kapitaina, bi ofizialak, bi zaintzaile, Martin tenientea, bere hemezortzi soldaduak eta medikua ziren; besterik ez.

Egoera seguru samarra zen arren, erabaki genuen ez uztea neurri bakar bat ere hartu gabe, eta gauez ustekabea erasotzea. Hala ere, espero baino lehenago heldu zen aukera, eta honela gertatu zen.

Egun batean, abiatu eta hirugarren astearen inguruan, medikua presoetako bat bisitatzera jaitsi zen, gaixo baitzegoen. Bere ohe azpian eskua jarri eta pistolaren itxura sumatu zuen. Isilik egon izan balitz, agian zapuztuko zukeen dena, baina mutil urduri samarra zen, eta ustekabeko garrasi bat egin zuen. Aurpegia zurbil geratu zitzaion, eta presoak berehala ulertu zuen zer gertatzen ari zen eta harrapatu egin zuen. Alarma jo aurretik ahoa estali eta ohean lotu zuten. Ontzirako atea ireki zuen, eta ate hartatik atera ginen korrika. Bi zaindariak tirokatuta hil ziren, baita gerturatu zen korporal bat ere. Bi soldadu gehiago zeuden ofizialen gelaren atean, baina euren mosketei ez zien tiro egin, antza kargatu gabe baitzeuden. Bajonetak jartzen saiatzen ari zirela, tiro eginda hil zituzten.

Ondoren, kapitainaren kabinara oldartu ginen. Atea ireki bezain laster, barrutik eztanda bat entzun zen. Kapitaina hantxe zegoen: hilda, burmuina zabalik, Atlantikoko maparen gainean. Mapa hori mahaian pinatuta zegoen. Apaiz faltsua haren ondoan zegoen, eskuan kea ateratzen zuen pistola batekin. Bi ofizialak tripulazioak harrapatuak zituen, eta dirudienez, kontu osoa amaituta zegoen.

Ofizialen gela kapitainaren kabinaren ondoan zegoen. Guztiok sartu ginen bertara eta eserlekuetan amildu ginen, denok batera hizketan. Aske ginela sentitzeak zoratuta bezala utzi gintuen. Alboetan armairuak zeuden. Wilsonek, apaiz faltsuak, bat apurtu eta dozena bat sherry ardo marroi atera zituen. Botilen lepoak hautsi, edalontzietara isuri eta edaten hasi ginen. Baina bat-batean, abisurik gabe, mosketen tiro-hotsa entzun genuen, eta saloia kez bete zen. Ezin genuen mahaiaren beste aldea ere ikusi.

Kea uxatu zenean, ikuskizuna ikaragarria zen. Wilson eta beste zortzi lurrean zeuden, bata bestearen gainean, hil ala zaurituta. Mahai gaineko odola eta ardoa ikusteak oraindik ere urdaila nahasten dit. Ikusitakoak hain txundituta utzi gintuen, non dena uzteko zorian egon ginen. Baina Prendergastek ez zigun uzten.

Oihuka hasi zen, zezen baten moduan, eta ate aldera abiatu zen. Bizirik geunden guztiok jarraitu genion. Kalera atera ginen korrika. Popan, tenientea eta hamar soldadu zeuden. Saloiaren gainetik zeuden leihoak irekita zeuden, eta handik tiro egin ziguten. Baina haiek berriro kargatu aurretik heldu ginen. Gogor egin zioten aurre, baina guk genuen abantaila.

Bost minututan guztia bukatuta zegoen.

Jainko maitea! Sekula ez dut hiltegi handiagorik ikusi. Prendergast deabru baten moduan zebilen. Soldaduak hartu eta itsasora botatzen zituen, bizirik edo hilik berdin zitzaion. Sarjentu bat larri zaurituta zegoen, baina denbora luzez igerian jarraitu zuen. Azkenean, norbaitek, errukiz, buruan tiro egin zion.

Borroka amaitutakoan, etsai gutxi geratzen ziren bizirik: zaintzaile batzuk, bi ofizialorde eta medikua. Haien inguruan sortu zen liskarra. Asko pozik geunden askatasuna lortzeagatik, baina ez genuen odolik geure gain hartu nahi. Armatuei aurre egitea gauza bat zen, baina gizonak hotz-hotzean hiltzea beste bat. Zortzi ginen aurka agertu ginenak: bost preso eta hiru marinel. Ez genuen halakorik onartuko.

Baina Prendergast eta bere lagunak ez zeuden prest etsitzeko. Esan zuen gure salbazio bakarra guztiak hiltzea zela. Ez zuen lekukorik bizirik utzi nahi. Guk ere presoen patua partekatzeko zorian geunden. Azkenean, aukera eman zigun: nahi izanez gero, txalupa bat hartu eta alde egin genezakeela. Berehala onartu genuen, jada nekatuta geunden odolzale haien kontuekin. Eta susmoa genuen oraindik zerbait okerragoa zetorrela.

Marinelen jantzi bana eman ziguten. Ur upel handi bat, bi upel txiki (bat haragi ketuarekin eta bestea galletarekin), eta konpas bat jarri zizkiguten. Prendergastek mapa bat bota zigun eta esan zigun naufragoak ginela, 15 gradu latitudean eta 25 gradu mendebaldeko longitudean. Gero, amarrua moztu eta alde egin genuen.

Eta orain, seme maitea, nire istorioaren zatirik harrigarriena kontatuko dizut. Matxinadan, marinelek itsasontziaren aurreko bela atzerantz bota zuten, baina guk alde egin genuenean berriz jarri zuten bere lekuan. Haize arin bat zetorren ipar-ekialdetik, eta Gloria Scott ontzia poliki-poliki urruntzen hasi zen.

Gure txalupa olatu leunetan gora eta behera zebilen. Evans eta biok, taldeko ikasienak izanik, gure kokapena kalkulatzeko ari ginen, eta zein kostatara jo erabakitzen. Aukera bi genituen: Cabo Verde uharteak iparraldera, 500 miliatara; edo Afrikako kostaldea, 700 miliatara, ekialdean. Haizea iparraldera aldatzen ari zenez, Sierra Leonerantz jotzea erabaki genuen, eta han jarri genuen norabidea. Orduan, ontzia ia desagertua zen gure eskuinaldeko atzealdean.

Bat-batean, begiak hara zuzenduta genituela, ke beltz trinko bat igotzen ikusi genuen zerurantz, zuhaitz erraldoi baten modura. Segundo gutxira, trumoi baten antzeko burrunba entzun genuen, eta kea desagertu zenean, Gloria Scott ez zen ageri. Berehala txalupako norabidea aldatu eta indar guztiz arraunean hasi ginen, hondamendiaren lekua laino apur batek seinalatzen zuen oraindik.

Ordu luze bat behar izan genuen iristeko, eta hasieran uste genuen beranduegi iritsi ginela. Itsas gainean zati txikituta zegoen txalupa bat, kutxak eta egur puskek zeuden, baina ez inor bizirik. Jada itzultzekotan geunden, bat-batean laguntza oihu bat entzun genuenean. Urruti samarrean, gizonezko bat hondoratze-zati baten gainean etzanda zegoen. Gure txalupan igo genuenean, Hudson izeneko marinela zela ikusi genuen. Erredura larriak zituen eta nekatuegia zegoen zer gertatu zen azaltzeko. Hurrengo goizera arte ezin izan zuen hitzik esan.

Kontatu zigunez, gu alde egin ondoren, Prendergast eta bere kideek gelditzen ziren bost presoak hiltzen jarraitu zuten. Bi zaintzaile tirokatu eta itsasora bota zituzten, baita hirugarren ofiziala ere. Gero, Prendergast ontziaren beheko gunera jaitsi zen eta bere eskuekin medikuaren eztarria moztu zuen.

Lehen ofiziala bakarrik geratzen zen bizirik. Gizon ausarta eta bizkorra zen. Presoa laban odoltsuarekin hurbiltzen ikusi zuenean, nola edo hala askatu zituen loturak eta korrika hasi zen ontziaren barrualderantz. Dozenaka preso armaturik jaitsi ziren haren atzetik. Azkenean, hautsontzi ireki baten ondoan aurkitu zuten, eskuan sukaldeko kaxa bat zuela, eta mehatxu egin zien: inor hurbiltzen bazen, denak lehertuko zituela.

Minutu bat igaro eta eztanda bat izan zen, baina Hudsonen uste zuen presoak tirokatutako bala batek eragin zuela, ez lehen ofizialaren sukatzaileak. Edozein izan zela ere, hori izan zen Gloria Scotten amaiera, baita haren agintepEAN zeuden gizon barbaroen amaiera ere.

Hori da, labur azalduta, nire mutil maitea, nik bizitako gertaera beldurgarriaren historia. Hurrengo egunean Hotspur izeneko ontziak jaso gintuen. Australia aldera zihoan. Kapitainak sinetsi zuen bidaiari-ontzi bateko naufragoak ginela. Gloria Scott ontzia itsasoan galdutzat jo zuen Itsas Armadak, eta haren egiazko patuaren berri inoiz ez dugu izan.

Bidaia ona izan genuen eta Hotspur ontziak Sydneyra eraman gintuen. Han, Evans eta biok izena aldatu genuen eta urre-meategietara joan ginen. Jende asko zegoen han, mundu osotik etorrita, eta ez genuen arazorik izan gure iragana ezkutatzeko. Gainerakoa ez dut kontatu beharrik. Ondo joan zitzaigun, bidaiatu genuen, eta aberastuta itzuli ginen Ingalaterrara, kolono modura. Lur sailak erosi genituen. Hogeita hamar urtez bizitza lasaia eta duina izan dugu, eta gure iragana betiko atzean utzi genuela uste genuen.

Pentsa, beraz, nire barrena nola zegoen, gure etxera etorri zen marinel hura berehala ezagutu nuenean. Hondoratze hartatik bizirik atera zen gizona zen. Nola edo hala gure arrastoa jarraitu zuen, eta gure beldurren gainean bizitzen hasi zen. Orain ulertuko duzu zergatik saiatu nintzen bakea mantentzen berarekin, eta ulertuko duzu zergatik dudan hainbesteko beldurra orain. Izan ere, beste biktimaren bila joan da, mehatxuekin.

Testuaren azpian honako hau zegoen idatzita, esku dardaratiz eta ia ez zela irakurri: Beddoesk kodez idatzi du H.-k dena kontatu duela. Ene Jainkoa, errukitu gure arimez!

Hori da gau hartan Trevor gazteari irakurri niona. Istorio hunkigarria zen. Mutila oso minduta geratu zen, eta Teraira joan zen, tea lantzerara. Han ondo dabilela dela entzun dut.

Marinelari eta Beddoesi dagokienez, ez zen berriz ezer jakin haien inguruan. Mehatxuzko gutun hura jasotako egun berean desagertu ziren. Inork ez zuen salaketarik jarri poliziarekin, eta Beddoesk uste zuen mehatxua egitate bihurtu zela. Hudson inguruan ikusi zuten, eta poliziak uste zuen Beddoes hil, eta ihes egin zuela.

Nik, ordea, kontrakoa uste dut. Beddoesk, estu eta larri, traizionaturik sentitu, eta mendeku hartu zuela uste dut. Hudson hil zuen eta ahal zuen diru guztiarekin herrialdetik alde egin zuen. Hori da gertatutakoaren benetako kontakizuna, Doktore. Zure bildumarako baliagarria bada, atseginez jarriko dizut eskuragarri.